

2006KO MARTXOAREN 30EKO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko martxoaren hogeita hamarrean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba.

Igor sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Gorka Lamy Intsausti zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2006ko otsailaren 23an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 2005EKO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-

Ondoren, Alkateak 2006ko martxoaren 14ko ebazpen bidez onartutako 2005 ekitaldiko aurrekontu likidazioaren berri ematen du. Likidazio honek 2.711.918,96 eurotako diruzaintzako gerakin likidoa ematen du. Txerta daitezkeen kreditu-gerakinak berriaz 1.519.081,71 eurokoak dira.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- KREDITU TXERTAKETA BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA.-

Jarraian 2006ko martxoaren 27ko dataz Alkatetzaren Ebazpen bidez onartutako 2006ko aurrekontuari egiten zaion Kreditu Txertaketa bidezko 1 Zbk.dun Kreditu Aldaketaren berri ematen da. Kreditu txertaketa honen guztizkoa 1.519.081,71 eurotako da eta

2005eko likidazioari Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenaren azken orrian azaltzen den zerrendako partidek osatzen dute.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

V.- PLAN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOAREN ONARPENA.-

Entitate honek defizit egoeran onartu du aurrekontua, 2006 urteari dagokiona, Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Sistema Europarraren arabera (SEC-95). Ondorioz, plan ekonomiko eta finantzario bat egin beharko du 18/2001 Legeak, Aurrekontuen Egonkortasunari buruzkoak, 22 artikuluan agindutakoaren arabera. Plan horrek honako ezaugarriak bete behar ditu:

- Udal Batzarrak onartu beharko du, defizita sortu denetik hiru hilabeteko epean.
- Planak bermatu beharko du hiru ekitaldi igaro ondoren defizit egoera desagertu egiten dela.

Agindu hori betetzeko egin da honako plan hau, bost atalotan banatua:

1. Memoria
2. 2005 urteko aurrekontu likidazioa
3. 2006 urteko aurrekontua
4. Adierazle ekonomiko eta finantzarioen bilakaera
5. Datozen urteetako aurrekontuen aurrikuspenak

Hori dela eta, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabakitzen du:

- Onartzea 2006ko plan ekonomiko eta finantzarioa, bere espedientean dagoena eta aurretik aipatu diren bost atalak dituen.

VI.- LAZKAON SENDIAN PROGRAMAREN INPLANTATZE ETA GARAPENERAKO JARDUNBIDEAK.-

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gizarte Politikarako Departamentuaren bidez burutu nahi dituen helburuen artean dago adinekoei laguntza eskaintzea ahal den neurrian beren gizarte-familia giroan mantenduz. Xede horrekin azken urte hauetan hainbat programa eta zerbitzu martxan jarri ditu, hala nola, Etxeko Laguntza, Eguneko Etxeak eta Aldi Baterako Egonaldi zerbitzuak nagusiki.

Gizarte Politikarako Departamentuak 1996az geroztik martxan jarri du proba gisara Sendian Programa, adineko ezinduek dituzten familiei laguntza ematekoa. Helburu hori lortu ahal izateko behar-beharrezkoa da udaletako oinarritzko gizarte zerbitzuen laguntza.

Sendian Programa 2000ko uztailaren 18ko 72/2000 Foru Dekretuaren bidez araututa dago eta laugarren artikulua dio Gizarte Politikarako Departamentua eta Udalen artean programaren jardunbideak ezarriko direla, erakunde bakoitzaren egitekoak eta zereginak zehaztuz.

Une honetan Lamy zinegotzia bertaratzen da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du programa honen publizitatea egiten bada bi hizkuntzan egitea eskatzen duela.

Zumelaga zinegotziak, Gizarte Zerbitzuak Batzordeko Presidente gisa erantzuten dio beti horrela egin ohi dela.

Olaso zinegotziak (PP) lan horiek nork egingo dituen galdetzen du.

Zumelaga zinegotziak erantzuten dio lan horiek jadanik gizarte langileak egiten dituela.

Guzti hau kontutan izanda eta Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabakitzen du:

1.- Sendian Programa Lazkaon martxan jarri eta garatzeko jardunbideak, bere espediente-an aurkitzen direnak, onartzea.

2.- Alkatea ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dago-kion jardunbide protokoloa izenpetzeko.

VII.- HIRIGOIENGO BIRRURBANIZAZIO LANEN 6. ZERTIFIKAZIOA.-

Hirigoiengo Birrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Iñaki Laskurain Gisa-sola ingineruak (INJELAN, S.L.) lanen seigarren zertifikazioa luzatu du. Seigarren zertifika-zioaren zenbatekoa EHUN ETA HEMEZORTZI MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO eta BERROGEITA HAMAR ZENTIMOtakoa (118.969,50 €) da. Lan Hau-ek GAIMAZ, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oneritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botue-kin, Hirigoiengo Birrurbanizazio lanen seigarren zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

VIII.- 18 H.A.KO 1 B.U.KO %10AREN BESTERENTZEA.-

Jarraian 18 Hirigintz Areako 1 Burutze Unitatean Lazkaoko Udalak duen % 10eko aprobetxamendua lehiaketa bidez besterentzea planteatzen da. %10 honen balioa, BE-RROGEITA ZAZPI MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA LAU EURO eta HIRUROGEITA HAMAR zentimo (47.644,70 €) da.

Hau horrela, Osoko Bilkurak, Udalaren jabetzakoa den 18 Hirigintz Areako 1 Buru-tze Unitateko aprobetxamenduaren % 10ren besterentzea lehiaketaz esleitzeko prestatu den baldintza plegua aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botua-rekin, kontratazio espedientea onartzea eta lehiaketa deialdia egitea erabakitzen du.

IX.- SAN PRUDENTZIO ERMITA ONDOKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.-

LKS Ingenieria enpresako Andrea Iglesias Laguardia Bide, Ubide eta Portuetako Ingenariak idatzitako Lazkaoko Planeamenduko AA.SS.etako 18.H.G.ko 1.B.Uren (San Prudentzio ermita ingurua) Urbanizazio Proiektua Udal Osoko Bilkurak 2005eko ekainaren 30ean egindako batzaraldian onartua izan zen.

Proiektua idatzi zenetik igarotako denbora kontutan izanda eta proiektuaren egilearekin hitzegin ondoren, prezioak %10ean igoz eguneratzea egoki ikusi da eta beraz proiektu honen aurrekontuaren zenbateko eguneratutakoa, Osasun eta Seguritate azterketa eta Kalitate Kontrola barne ZORTZIEHUN ETA HOGEITA LAU MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (824.688,74) da, B.E.Z. barne.

Bestalde proiektu honen lanak burutzeko kontratazio espedientea prestatu da. Lanak prozedura ireki eta lehiaketa bidez esleitzea planteatzen da. Bere espedientean aurkitzen den berariazko administrazio eta ekonomi baldintzen pleguan zehazten den bezala, esleipena egiteko erizpideak honako hauek izango dira: prezioa %60ean balioztatuko da, epea obrako xehetasunez eginiko planning batez zurituta, %20ean balioztatuko da, eta azkenik, obrari atxikitutako bitarteko pertsonal nahiz teknikoak %20ean balioztatuko dira. Lanen burutzea 2006 eta 2007 urteetako aurrekontuetatik finantzatuko da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko bo-tuekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Lazkaoko Planeamenduko AA.SS.etako 18.H.G.ko 1.U.E.ko Urbanizazio Proiektuko (San Prudentzio ermita inguruko urbanizazio lanak), lanak burutzeko kontratazio espedientea onartzea.
- 2.- Lanak lehiaketa ireki bidez esleitzeko lizitazio deialdia egitea.

X.- 10-12 H.A.KO HIRIGINTZ HITZARMENA.-

Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 10-12 Hirigintz Areako planeamendu garapenarekin aurrera egiteko, bai onurak bai kargak zehaztuz gune horretako lurjabeekin hirigintz hitzarmena izenpetu nahi da.

Hau honela jadanik lurjabe batzuekin izenpetu da eta gainontzekoekin ere izenpetzea litzateke helburua.

Hirigintz hitzarmenaren xehetasunak honako hauek dira:

I.- Lazkaoko Udalaren asmoa da, bere sozietate instrumentala den LAZKAO LANTZEN S.A.ren bidez, 10 eta 12 Hirigintz Guneen (Iturgaitzaga) sustapena eta hirigintz garapena, zein hirigunea eta Ibabe Industri Poligonoaren artean aurkitzen diren.

II.- Une hauetan Lazkaoko AA.SS.en aldaketa puntualaren aurrerapena onartua aurkitzen da, goian aipatutako guneari dagokiona.

III.- Gune honen garapena bultzatu duten arrazoiak hainbat dira:

Alde batetik 10-12H.A.tako sarbideari konponbidea ematea, Arau Subsidiarioek 1. Sektorrean aurreikusitako errotonda lekualdatuz, funtsean gune horretara eta aldi berean herri-gunera sartzeko bidea izango dena. Errotonda hau Lazkaomendirako sarbide ere izango da.

Saihesbidea aldatzea, 3. sektoreko hegoaldeko muturrean hasitako oinezkoen pasealekuari jarraipena emateko, eta era berean 3. sektorea eta 1. sektorearen artean hasitako bideari jarraipena emateko.

Ordenatutako hirigunea sortzea, erakarpen foku bihurtuko dena, ez erdigunearen mende-koa soilik, bere osagarri izango dena baizik.

IV.- Iturgaitzagako guneak, 10 eta 12 Hirigintz Areak, herrigunea eta Ibabe Industri Poligo- noaren artean kokatuak, hiritar sailkapena du.

V.- 10-12H.A.tako proposatutako antolaketak, gune hori, izaera propioa emango dion hiri- gintz ordenarekin konfiguratzea du helburu. Hau honela, egungo eraikin batzuk antolaketa berrian barneratu eta fisikoki ondoko industri poligonotik banantzeko premisekin, 3 ele- mentutan oinarritutako antolaketa proposatzen da:

- Ipar-Hego zentzuan oinezkoen kaleak, gune hau herrigunearekin naturalki komuni- katuko dutenak.
- Hiribarren kaletik zehar herrirako aurreko sarbidea ordezkatzeta.
- Errotonda berritik 10-12 Hirigintz Areatara eta herrigunera sartzeko bide sistema berria.

..... (ukitutako lursaileen deskripzio eta titularitatea).

IX.- Lazkaoko Udala, bere sozietate instrumentala den Lazkao Lantzen S.A.ren bidez, gu- nearen barruan eraitsi behar diren etxeetako jabeekin akordio batzuk lortzen ari da. Akor- dio hauekin batera, era berean eta kasu batzuetan dagozkion kalte-ordain ekonomikoak aurreikusten dira, irizpide objetiboen arabera eta eraitsi behar den etxebizitzan oraintsu burutu diren inbertsio eta/edo hobekuntzei dagozkienak. Lazkao Lantzen S.A. egiten ari den oinarritzko eskeintza etxebizitza berriko 0,9m² etxebizitza zaharreko metro karratu ba- koitzeko aldatzea da. Eskualdaketa bikoitz honen gastuak parte hartzen duten aldeetako bakoitzaren kontura izatea proposatzen da, etxebizitzen eraispinak eragindakoei ematen zaien etxebizitza berria erosteak sortutako gastuak ordaindu ditzaten.

X.- Lazkaoko Udalak eta guneko gehiengoa duten jabeek gune hau garatzeko beharrezko diren akordioak hartzeko interesa dute, etxebizitza mistoaren erregimena ezartzea onar- tuz, hau da, adostutako prezioa duten etxebizitza librea (Udalak tasatutako prezioko etxe- bizitza) eta etxebizitza librea.

XI.- Hirigintz hitzarmen hau Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntualaren bidez garatuko da, non bertan hartutako akordioak gauzatzea posible egingo duten zehaztapenak jasoko diren.

Izandako elkarrizketen ondorio modura, aldeek hirigintz arloko interes publikoa egungo araudiarekiko hobekiago lortzea dute helburu, eta hirigintz hitzarmen hau izenpetzen dute ondorengo arabera,

AKORDIOAK

LEHENA.- HELBURUA.

Hirigintz hitzarmen honen helburua, agertzen diren aldeek beren borondatez Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 10-12 Hirigintz Areen "Iturgaitzaga" hirigintz garpenerako, gestiorako, urbanizaziorako eta eraikuntzarako berengain hartzen dituzten konpromezuak ezartzea da, horretarako udalerriko planeamendu orokorrak jaso behar dituen hirigintz parametroak zehaztuz.

BIGARRENA.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA.

Lazkaoko Udalak 10-12H.A.tako -Iturgaitzaga- Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala bultzatzeko konpromezua hartzen du, eta hala nola Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egita-mua izapidatzea, bere mugaketa, sailkapena eta kalifikazioa ezarriz, eta antolaketa nahiko xehetasunez adieraziz.

Lazkaoko Udalak, hirigintz hitzarmen hau izenpetzen denetik hilabeteko epean, dokumentua haserakoz onartzeko konpromezua hartzen du, guneko aprobetxamenduen %80ekin. Jarraian dokumentua izapidatzeko beharrezko diren pausuak emango dira, bere behin-be-tiko onarpena arte.

Aldaketa honekin batera berau garatuko duen Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egita-mua izapidatuko da (haserakoz eta behin-behinekoz AA.SS.en aldatetaren epe berean onartuko dena), eta era berean Birpartzelazio Proiektua (berau idaztea LKS-ri eskatuta) eta Urbanizaziokoa idaztea eta izapidatzea (berau idaztea IKAUR S.L.ri eskatuta).

Guneko fitxa partikularrean ondorengo parametroak ezarriko dira:

- Sabai eraikigarria.
- Etxebizitzen kopurua.

Etxebizitza erabilerarako gehieneko sabai eraikigarria 48.809m²-tan finkatzen da.

Gunean eraiki daitezkeen etxebizitzen gehieneko kopurua 436 unitatekoa izango da, hau-etatik 78 adostutako salneurria duten etxebizitza libreak izango direlarik (Udalak tasatuta-ko preziokoak), eta 307 etxebizitza libreak, birkokapenetara zuzendutako 51 etxebizitza deskontatu ondoren.

Eraitsi behar diren etxebizitzen kopurua, eta beraz burutu behar diren birkokapenena 51-koa da. Arrazoi ezberdinak direla eta azkenik birkokapenetara zuzendu beharreko etxebizi-tzak 51 izango ez balira, gaineratiko etxebizitzak hitzarmen hau izenpetzen dutenen arte-an banatuko lirateke, bakoitzaren partaidetza portzentaiaetan, eta lehen aipatu diren ados-tutako salneurriko etxebizitza libreen kalifikazioa izango dute.

Merkataritza erabilerari dagokionean gehienezko sabai eraikigarria 1.981m²-koa izango da.

Era berean sotoko garajeen kopurua gutxienez etxebizitzako garaje batekoa izango dela ezartzen da.

HIRUGARRENA. - KARGAK.

Hitzarmen hau izenpetzen duten jabeek, saihezbidea gunearen ertzetara lekualdatzearen kostua berengain hartzen dute, errotonda baten bidez inguruan dagoen egungo bide sareekin lotzeari dagokionaz gainera.

Era berean izenpetzaileek, urbanizazio proiektuan jasoko den bezala, konbentuko horma berregitea berengain hartzen dute, mugatzen duen partzelaren zati bat gunean barneratuta egotean zati bat eraistea beharrezkoa bait da.

Hitzarmen hau izenpetzen duten jabeek IX. puntuan adierazitako akordio guztiak beren gain hartzen dituzte, Lazkao Lantzen S.A.k eraitsi behar diren etxebizitzetako jabeekin adosten dituen terminoetan, eta hala nola Lazkao Lantzen S.A.k birkokapenera zuzenduko den bloke edo partzela zehaztea ere.

Eraitsi behar diren etxebizitzek eta jabeekin hartutako akordioen parte osatzen duten erantsitako lursailek sortutako aprobetxamendua, hitzarmen hau izenpetzen dutenen artean banatuko da proportzionalki, gunean bakoitzak duen azalera portzentaiaren arabera.

Hitzarmen hau izenpetzen duen lursailen jabe bakoitzak urbanizazioak eta birkokapenak sortutako kargak beregain hartuko ditu, gunean bakoitzak jarritako azaleraren arabera.

Birkokapenetara zuzendutako 51 etxebizitzak dagokion Udal baimena ordaintzera lotuta egongo dira, baina urbanizazio kargetatik salbuetsita.

Gunearen antolaketak hala eskatuko balu, jabeek, aipatu bide sarea burutzeko beharrezko diren lursailak aurrez utzi beharko dituzte.

LAUGARRENA. - SALNEURRIA ADOSTUTAKO ETXEBIZITZA LIBREAK.

Goian aipatutako adostutako salneurriko etxebizitzaren gestio eta esleipena Lazkaoko Udalak burutuko du. Esleipena Udalak berak egindako etxebizitza eskatzaileen zerrenda erabiliz gauzatuko da, Notario aurreko zozketa bidez, edo Udalak egoki deritzon beste edozein formularen bidez.

Adostutako salneurriko etxebizitza libreen gehienezko salmenta prezioa Babes Ofizialeko Etxebizitzaren moduloa 1,9 bider izango da. Udal obra baimena ematerakoan indarrean dagoen moduloa aplikatuko da.

Era berean, adostutako prezioa duten etxebizitza libre hauek urbanizazioko gastu guztietan parte hartuko dute, baita gunean sortutako birkokapenetakoan ere, goian adierazitako salmentako gehienezko balioaren arabera dagokion kuotarekin (etxebizitza balioaren %12a).

Etxebizitza guztiek, baita adostutako salneurriko etxebizitza libreek ere, Udalari derrigorrez eman beharreko %10ren zatia ordaindu beharko dute.

BOSTGARRENA.- LAZKAOKO UDALARI APROBETXAMENDUAREN %10A EMATEA.

Ehuneko hamarraren zesioari dagokion ordainketa Udalari espezietan egingo zaio, bere kokapen fisikoa Udalak berak zehaztuko duelarik, guneko lursailen jabeekin adostu ondoren.

SEIGARRENA.- BERARIAZKO EGITAMUA ETA BIRPARTZELAZIO ETA URBANIZAZIO PROIEKTUAK.

Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitamua (BEBE) eta urbanizazio nahiz birpartzelazio proiektuak Lazkaoko Udalak sustatu eta izapidatuko ditu, eta guneko lursailen jabeen kontura eta kargura izango dira. Dokumentu horiek idaztearen gutxi gorabeherako zenbatekoak eta hauei aurre egiteko kontratatutako epeak ondorengoak dira:

Berariazko Egitamua: zehaztu gabe.

Birpartzelazio Proiektua: 38.280,00 €
(%50a Haserakoz Onartzerakoan eta beste %50a Jabetza Erregistroan inskribatu ondoren)

Urbanizazio Proiektua: 98.000,00 €
(66.000,00 € Haserakoz Onartzerakoan eta 32.000,00 € Behin-betikoz onartu ondoren)

Obra Zuzendaritza: 126.000,00 €, obra-zaintzeagatik 42.000,00 € gehitu behar zaizkiolarik.

ZAIZPIGARRENA.- EZ-BETETZE, JURISDIKZIO ETAB.EKO KLAUSULAK.

Hitzarmen honen baliozkotasuna Lazkaoko Udaleko Osoko Bilkurak berau berrestera baldintzatua egongo da, eta era berean bertan adierazten diren terminoetan planeamendua behin-betikoz onartzera.

Izenpetzaileek hitzarmen honen arabera hartutako betebeharrak leialki betetzeko konpromezua hartzen dute, baita azkenik unitateko jabe guztiek izenpetuko ez baluteke ere, hauek berekin bat egitearen kalterik gabe.

ZORTZIGARRENA.- HIRUGARRENEI ESKUALDAKETA.

Izenpetzaileraren batek bere lursail eta/edo eraikitze eskubideen titularitatea eskualdatuko balu, erosleari subrogatuko dizkio espresuki, hitzarmen honetatik ondorioztatutako eskubide eta betebeharrak guztiak, eskritura publiko bidez, eta Lazkaoko Udalari sinesgarriro jakinaraziz.

Hala ere, eta Hitzarmen hau egungo jabeek nahiz aurreko paragrafoan aurreikusitako suposamenduko erosle berriek betetzea bermatzeko, publiko egingo da, eta Jabetzaren Erregistroan inskribatuko da.

BEDERATZIGARRENA.- GASTUAK ETA ZERGAK.

Hitzarmen honetatik ondorioztatutako gastu eta zerga guztiak, hala nola berau eskritura publiko bihurtzeari dagozkionak, urbanizazio gastu bezala kontsideratuko dira, eta dokumentu honen izenpetzaileek bakoitzaren partaidetza portzentaiei arabera likidatuko dituzte.

Serna zinegotziak (PSE-EE) zenbait argibidde eskatzen ditu gai honen inguruan eta Alkateak eskatutako argibideak ematen dizkio.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du bera abstenitu egingo dela gai honetan.

Gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 10 botu (EAJ, EA, PSE-EE), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez, 10-12 Hirigintz Areako hirigintz hitzarmen hau onartu egiten du.

XI.- AGENDA 21: EKINTZA PLANA.-

Udal honek Goierriko gainontzeko udalerriekin batera Lankidetz hitzarmena izenpetu zuen, 2003ko urriaren 2an, IHOBE elkarte publikoa, GOIEKI eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Udaltalde 21 Goierri eremuan Tokiko Agenda 21 ezartzeko.

2005eko azaroaren 24ean, Osoko Bilkura honek, "Europako Hirien Karta Garapen Jasangarriaren Bila" eta "Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun Konpromisoarekiko Atxikipena" dokumentuak onartu zituen Agenda 21eko proiektuaren itzalaren inguruan. Lehenengo dokumentuaren onarpenak Europako hirien karta garapen jasangarriari adostasun aitormena dakar berekin eta bigarrenak berriz Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun konpromisoarekiko atxikipena.

Hildo honetatik eta Agenda 21eko proiektuaren barnean, Iraunkortasunerako Ekintza Plana dokumentua aurkezten da Osoko Bilkurara bere onarpenerako.

Onarpenera aurkezten den dokumentua, bere espedientean aurkitzen da, eta bera-ri buruz zera esan daiteke:

Tokiko Ekintza-plana tokiko kudeaketa eta politikak iraunkortasunaren alde zuzentzeko borondatezko tresna bat da, eta lortu beharreko helburu-multzo baten bidez eta eskala lokalean hainbat urteko epean gauzatu beharreko ekintzen bidez egituratzen da. Ekintza-plana Tokiko Agenda 21en funtsezko tresna eratzailea da.

Tokiko Ekintza-planaren funtsezko helburua da udalerri iraunkorragorantz aurrera egitean aurrerapen ekonomikoa, zuzentasun soziala eta ingurumenaren babesa bateratzea sustatzen eta bateratzen uzten duena eta herritarren bizi-kalitatea hobetzen duena.

Tokiko Ekintza Planak udalerrian aurrez egindako azterketa eta diagnostiko zabal batean oinarritzen dira. Azterketa horren bidez, gaur egungo barne-ahulezia eta -indar nagusiak eta etorkizuna muga dezaketen aukerak eta mehatxuak identifikatzen dira.

Ekintza-planak, batetik, plangintza estrategikorako tresna dira, udalerrri gisa lortu beharreko helburuak eta ikuspegia ematen baitituzte estatutik eta egungo joeratik abiatuz; eta, bestetik, hainbat sektoretako ikuspegiaren eta lehentasunen adostasuna dira.

Zentzu honetan, agiri honetan kontuan izandako kapituluak ondoko hauek dira:

DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA-PLANERA

Ondoko hauek barne hartzen ditu: Egungo egoeraren Diagnostikoa, udalerrriak kontuan hartutako gaikako eremu bakoitzean dituen joerak eta, hortik aurrera, Ekintza Planeari georago islatuta agertzen diren jarduteko helburu erlazionatuen ezarpena.

IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA- PLANA

Lazkaoko Iraunkortasunerako Ekintza-planaren edukien deskribapena eta karakterizazioa barne ditu, Ildo Estrategikoen, Ekintza-programen eta Ekintzen azalpenaz zein deskribapenaz, eta Planaren karakterizazio zehatzez.

EKINTZA- PLANAREN SEGIMENDUA

Eskema moduan, Lazkao udalerriko Tokiko Agenda 21 prozesuaren segimendurako diseinatutako Iraunkortasunerako Adierazleen Sistemaren deskribapena eta karakterizazioa aurkezten da, udalerriko egoera eta Iraunkortasunerako Ekintza-planaren ezarpenerako garapen-maila urtean behin ebaluatzeko moduan.

Guzti honen ondoren eta dokumentua aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertarutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Agenda 21eko Ekintza Plan hau onartzea erabakitzen du.

XII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du San Prudentzio festak direla eta, hurrengo osoko bilkura apirilaren 20ean izango dela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du su-etena dela eta, beraiek behintzat oso pozik daudela adierazi nahi duela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beraiek ere itxaropentsu daudela su-etena rekin baina aldi berean zuzentasuna adierazi nahi dutela gai honetan.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du gaia benetan esan den bezala baldin badihoa ba ondo baina beldur dela esan diren gauza asko ez direla beteko.

XIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hogeita bat direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.